

Innobideak-Kudeabide 2024 Programa

<p>Helburua (1. oinarria)</p>	<p>Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta EAEko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da.</p>
<p>Erakunde Onuradunak (3. oinarria)</p>	<p>Nortasun juridiko propioa duten enpresak:</p> <ul style="list-style-type: none"> egoitza sozial eta fiskala Bizkaian eta ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko bat Bizkaian izatea. 5 langile edo gehiago eta 50 langile baino gutxiago izatea (lanaldi oso baliokidean). jarduera sektore hauetan kokatuta egotea: industria, eraikuntza, garraioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (Dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera) eta JEZen alta emanda.
<p>Gehienez aurkez daitezkeen eskabideen kopurua (14. oinarria)</p>	<p>Erakunde bakoitzak gehienez ere eskabide bat aurkez dezake.</p>
<p>Diruz lagunduko den egitatea (4. oinarria)</p>	<p>Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrigo izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat.</p> <p>Horretarako, enpresek aldeztu aurretik egin beharko dute hasierako kudeaketa Kontrastea, www.kudeabide.com helbidean eskatzen dena</p>
<p>Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. oinarria)</p>	<p>Kanpoko aholkularitza-enpresekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.</p>
<p>Laguntzen zenbatekoa (6. eta 28. oinarriak)</p>	<p>Diruz lagun daitezkeen gastuen % 60 – Gehienezko dirulaguntza 7.200 euro</p> <p>Diruz lagun daitezkeen gastuen %40 aurreko hiru ekitaldietako bitan Kudeabide programan % 60ko dirulaguntza lortu duten enpresen kasuetan - Gehienezko dirulaguntza 4.800 euro.</p> <p>Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da onuradunak justifikatu ondoren.</p>
<p>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea</p>	<p>30/2024 Foru Dekretua, martxoaren 21koa (BAO 64 zk. 2024ko apirilaren 3koa).</p> <p>Emakida lehia askearen araubidean (emate indibiduala, zuzen osatutako eskaeren jasotze-hurrenkeraren arabera)</p>
<p>Epeak (24. eta 13. oinarriak)</p>	<p>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak: 2024ko urtarrilaren 1etik eta 2025ko urriaren 1era arteko epean, biak barne.</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 15etik irailaren 30eko 13:30etara arte.</p> <p>Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da (www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bitartez sartu. B@kQ ziurtagiria gure bulegoetan eska daiteke, Orueta Apezpikua kaleko 6an.</p>

Ekonomia Sustatzeko Saila
Berrikuntza Zerbitzua,
Orueta apezpikua, 6. 48009 Bilbao

Argibideak:
Tf.: 94 406 8008
berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus
www.bizkaia.eus